

EZKUTUKO HITZAK

Mara Goikoetxea Gereñu, 13 urte

Beasain

“Kontuz! Hortxe dagoela! Alde egin, azkar, jango zaituuuuuu...!” Eta horixe da Blendak esan didanez, nik bart oihukatzen nuena amets sakon batean. Esnatu ninduenean, izerdi batean nengoen, benetan alde egin izango banu bezalaxe.

Goizeko seiak ziren oraindik, eta guk hamar minututan kanpin-dendatik ospa egin behar genuen. Oso goiz zen baina, gogorra da ikerlari baten bizitza! Praka motzak jantzi, alkandora berdexka ondo lotu, txapela jarri eta mendiko, edo, kasu honetan, basamortuko botak jantzi nituen denbora gutxi horretan. Noski, ez nuen gosaltzeko astirik izan, baina ogitarteko eder bat nuen nire bizkar-zorroan. Oraindik eguzkia ez zen agertu zeru urdin eta garbi hartan, baina bere burugaina bistan zen. Eup! Hasi zen jada, gure eguneroko ibilaldia, eta, azkenaldi honetan gainera, ibilaldi aspergarria.

Eguzkia erabat agertu zenean, ez genuen antortzen beharrik izan, eta basamortuko hare sakonetan tinkatu genituen. Oso nekagarria zen hare gai-

nean ibiltzea eguneko hamar ordutan, ia-ia atsedetik ere egin gabe. “Refy!”, ari zitzaidan Blenda atzetik deiadarka. Ez zidan ezertxo ere esaten, baina bere behatzaren norabideagatik den-dena ulertu nuen. Hor, aurrerago, ezkerretara biribil itxurako eraikin bat zegoen.

Basamortuan, zer edo zer bilatu nahian genbiltzan, eta hau izan zen gure bi hilabete luze eta geroko lehen aurkikuntza. Harantz abiatu ginen, ibilera sendoarekin, pozez eta aldi berean jakin-min handiz.

Iritsi ginenean, egin behar genuen lehenengo gauza sarrera bilatzea zen, gu iritsi ginen lekuan ez zegoelako inolako sarrerarik.

–Hortxe dago! –egin zuen oihu Blendak, atea zegoen norabidea seinalatuz. Korrika bizian joan nintzen haraino eta harrizko ate sendo batekin egin genuen topo. Baina bertan ez zegoen inolako sarrailaren arrastorik.

Gaueko hamarrak izango ziren jada, eta gure kanpin-denda txikia bizkar-zorrotik atera eta muntatzen hasi ginen. Biribil itxurako eraikinaren atarrearrean ezarri genuen denda, eta barruan sartu, patata tortillazko ogitarteko on bat afaldu, eta segituan geratu nintzen lotan, hori bai, su txiki baten ondoran, babes moduan.

Biharamunean, sua itzalita aurkitu genuen, haizea izango zela pentsatu nuen, garrantzi handirik eman gabe. Kanpin-denda berriz ere jaso, eta beste ogitarteko pare bat prestatu nituen. Nire sabela orroka ari zen jadanik! Ogitartekoa jan eta abiatu

egin ginen, eraikinaren sarrerara berriz ere. Atea ondo aztertu zuen Blendak eta nik bitartean eraikinaren harriak behatu nituen. Lupa kontu handiz atera nuen eta, harrira gerturatu nintzen. Guk, ikerlariak izanik, liburu asko genituen irakurrita, batez ere harriei eta landareei buruz. Eta harri haietan distira arraro bat ikusi nuen, harriarekin bat ez zetorren distira. Harritu egin nintzen, eta Blendari gerturatzeko eskatu nion, bera zen eta biotan azkarrena. Lupa eskutik kendu zidan eta harrira gerturatu zen, harritu aurpegia jarri, eta pentsatzen hasi zen. Bat-batean, bioi ideia berdina etorri zitzaigun burura. Noski! Liburu batean agertzen zen harrietariko bat zen! Blendak esan zuenez, oasietan bakarrik aurkitzen diren harrietariko bat zen. Baina harria ez zen bakarra eraikinean, guztiak berdin-berdinak ziren. Dudarik ez zegoen, harri horiek oasi batetik aterata zeuden. Beraz, intrigaz josita geundelako, han barruan zer arraio zegoen jakin nahi genuen nola edo hala, eta oasi baten bila abiatu ginen, atea irekitzeko pistaren bat aurkitu ahal izateko.

Aspaldidanik ez genuen abenturarik izan, bazen ba garaia bat izateko! Gainera, oasia guri ondo etorriko zitzaigun, pixka batean itzalean egon eta atsedena hartzeko.

Beti bezala, nire sabela kexatzen ari zen. Ez dakit zergatik aukeratu nuen lan hau, jakinda hain tri-pontzia naizela! Beno, baina oraingo honetan, pixka bat gehiago jasan beharko nuen janik gabe, gure erreserbak bukatzen ari zirelako.

Berriro ibili eta ibili, eta ezer aurkitu ez. Neka-neka eginda nengoen, eta esertzeko gogo itzela nuen. Esertzera nihoala, plast! Hanka osoa barneratu zitzaidan hondarretan! Nire oin azpian zerbait sentitu nuen, oihal bat egongo balitz bezala. Blendari deitu nion laguntza eske. Agudo etorri zen ni hondar sakon horietatik kanporatzen laguntzera. Atera eta gero, nire oin azpian sentitu nuena zer ote zen jakin nahi nuen, eta hondarretan etzan, eta besoa luzatu nuen, zuloan sartuz. Zerbait ukitu nuen, ez nekien zer zen, baina hartzeko moduren bat egon behar zuen. Gero eta gehiago saiitzen nintzen besoa luzatzen, ahalik eta errazen hartzeko gauza ezezagun hura. –Azkenean!– oihukatu nuen, eta besoa zailtasun handiz atera nuen zulotik, baina atera nuen. Objektu ezezagun hari paper antza aurkitzen nion, eta nahiz eta zikin egon, arrasto batzuk antzematen ziren. Blendak eskuarekin hondarra kendu zion paperari eta garbiago ikusi genituen arrastotak, baina hala ere, harrizko oin itxurako marrazki bat baino ez zen antzematen. Behatz baten gainean, punta bat zegoen, baina hala ere, papera ez zegoen osorik. Blendaren bizkar-zorroan gorde genuen papera, nirean ez baitzen sartzen, ogitartekoek leku ia osoa betetzen zutelako.

Ibiltzeaz nazkatuta, kataleju batzuk atera nituen urrutian zer edo zer ikusteko esperantzaz. Eta hala xe izan zen! Ez nekien zer zen baina ziur nengoen bazegoela zerbait urrunean. Blendari ohartarazi nion eta segituan iritsi ginen bertara. Begiak zabal-

zabal eginda genituen biok halako miraria ikustean. Oasi ikaragarri bat zen! Ez nekien hau izango zenik harri horien oasia baina aukera bazegoen. Zuhaitz eta belar artean murgildu ginen Blendaren bizkar-zorroa ondo babestuz, aurkitutako paper zatia bertan baitzegoen. Azkenean iritsi ginen ura zegoen tokira, eta belar luze eta fin batzuez inguratuta zegoen putzu hura. Bitxia iruditu zitziagun, gure paper erdian zegoen oinaren itxura berbera zuelako putzuak. Ez genekien zerbait esan nahiko ote zuen, baina bitxia zen gero! Gainera, Blendaren ikusmen bikainari esker, belarretan harrien distira berdinari erreparatu zion. Oso bitxia zen benetan. Momentu hartan, papera ateratzeko eskatu nion, ondo behatu nahi nuen eta. Bai noski! Oraingo honetan ni izan nintzen xehetasun bat ikusi nuena. Behatz gainean zegoen punta hori izan zitekeen, belar horietako baten punta, zergatik ez?

Beno, gaurkoz nahikoa deskubritu dugu, bihar beste egun bat izango da, eta espero dut lasaiagoa izatea, baina aldi berean jarraitzeko irrikaz nago!

Gaur goizean beste egunetan baino goizago jaiki naiz, jakin-min izugarria sentitzen nuelako neure barnean. Blenda esnatu nuen neure azkeneko ogitartekoetako baten usai ederrarekin. Eta ezer esan gabe, nire ogitartekoari koskada eder bat eman zion!

Berriz ere putzuan geunden jada, lupa eskuan genuela, edozein pista txikiren zain. Orduak eta orduak igaro ziren, eta ezer ez. Baina halako bate-

an... uretan objektu bat ikusi genuen, eta igotzen ari zela ematen zuen. Uraren gainazalera iritsi zen azkenean, eta Blendak kontu handiarekin hartu zuen. Busti-busti eginda zegoen, baina une hartan ez genuen lehortzeko ezer gainean. Inguruan genituen belar zabalen punta bat hartu, eta Blendari eskaini nion, lehortzeko balio zezakeen eta. Lehortzen hasi zen, eta nik ikusi nuen edozeren antza hartzen nion... zer izan zitekeen?

Eguzkitan utzi genuen objektua, pare bat ordu, edo, ia erabat lehortu zen arte. Orduan ikusi nuen zeren antza hartzen nion, gure paperarena! Bai! Gure paperari falta zitzaion beste zatia zen! Eskuan neukan azkeneko belar pusketa hartu nuen eta ur tanta bat kendu nion gainetik. Ai ama! Itzelezko sustoa eman zidan! Bat-batean, magiaren bidez bezala, belarren marrazkiak agertu ziren orain arte orri zuria zenaren gainean.

Nerbioak jota geunden, beno, ni behintzat bai, eta Blendaren bizkar-zorrotik atera nuen oinaren marrazkia zuen paper zatia. Biak ederki asko sartzen ziren bata bestearen ondoan, eta orain atea nola irekitzen zen jakitea bakarrik falta zitzaigun. Paperari begira geunden Blenda eta biok, pentsatzen “oina, belarrak, oina, belarrak...” ondo behatu genuen marrazkia: belarren punta oinaren gainean zegoen, eta oinak harri itxura zuen. Iuuuuu! Azkenean bai! Nik asmatu dut, nik asmatu dut!

–Zer asmatu duzu? –galdetzen zidan Blendak, nire hanka eskuarekin helduaz, gehiago ez urruntzeko.

–Nola irekitzen den asmatu dut! –erantzun nion garrasi batez, pozaren pozez. –Oraintxe argituko dizut, bada: eraikinean oin itxurako harri bat dago, eta oasian ikusi genituen belar zabal haiek, badakizu zeintzuk diren?, ba horiek oin horren gainean jarri behar dira, marrazkian bezalaxe.

Eta halaxe abiatu ginen berriz ere eraikinerantz.

Oinez igarotako egun oso baten saria iritsi zen jada, bertan zegoen eraikina, oraingo lana? Oin madarikatua aurkitzea, eta ez zen lan makala izango! Hasieran, behetik hasi ginen bilatzen. Baina pixka bat aurrerago, distira indartsuago bat nabaritu nuen. Aurreratzen joan nintzen astiro-astiro, beldur apur bat bainuen. Iritsi eta..., zer zen hura! Ez zen posible, egun honetan gauzak ez ziren beste aurreko bi hilabeteetan bezala gertatzen. Denbora horren eskupekoa izango zen, hortxe zegoen oina! Belarrak hartu eta oinaren gainean jarri genituen, eta hasieran, ezer ez zen gertatzen, baina... pum! Atearen zaratotsa entzun genuen eta barrurantz abiatu ginen.

Barruko hura ez zen oso handia, solairu bakarrekoa, biribil itxurako sabaia oso osorik ikusten zelarik. Han, hautsez eta liburuz beteriko apalategiak besterik ez ziren nabari. Liburu horietan bakartiena hartu nuen eta begiratzen hasi nintzen. Lehenengo orrialdean ezkutuan, hitz hauek jarzen zituen: “Oasi ezkutuko belarrak, sendatzeko ez dira batere txarrak”.

Oasi ezkutua, horixe zen guk aurkitu genuena. Eta belarrak ere erabili genituen, baina sendatzeko

al ziren, bada? Oasira itzuli beharko dugu berriz ere, hau da hau! Sendatzeko direla esaten du, baina zer sendatzeko? Argi zegoen liburu hau aspaldi-aspaldikoa zela, agian apalategi horietatik zaharrenetakoa. Eta oraingo gaixotasun sendaezin baten bat sendatzen badu?

Hainbeste ziren nire galderak, oso nahasita nengoela. Berriz ere oasirantz! Oraingo honetan, ibilbidea errazagoa egiten zitzaigun, ia-ia buruz baike- nekien. Geure etxean bezalaxe sentitzen ginen oasi maitean, eta belarrak hartzen hasi ginen. Baten batzuk hartu ondoren, Blenda, hori egitea debekatua zegoela konturatu zen! Belarrak esku- ratzeko baimenen bat eduki behar genuen. Beno, inork ez zekien belarrak guk hartu genituenik, beraz, orain arte hartu genituenak bizkar-zorroetan sartu genituen.

Egina zegoen gure misioa! Eta gainera bi ogitar- teko soberatu zitzaizkidan! Orain geure benetako etxera itzuli behar genuen, atsedena hartzera, eta belarrak ikertzera. Ze gaixotasun sendatuko ote zituen?

Etxean berriz ere! Ze gustura egoten den larruz- ko sofa honetan! Ez dauka zerikusirik kanpin- den- darenkin! Oraintxe bertan patata tortilla bat pres- tatzen ari naiz, entsalada pixka batez lagundua. Bihar ere goizean goiz altxatu behar gara laborate- gira joateko, agian botikaren bat egin dezakegula- ko belarrekin.

–Kaixo nagusi! –agurtu nuen, eskua eman ez eta bizkarrean kolpetxo bat joz.

–Berririk bai? –galdetu zidan berak.

–Ba... egia esan... ez! –erantzun nion gezurretan. Gainera arrazoiak nituen hori egiteko, beste lankideei hori galdetzen dienean berari sekretu guztiak kontatzeko esaten zien eta hala, berak eramaten du fama handiena. Eta ni ez nengoen prest horrelakorik egiteko, ez horixe! Orduan Blenda eta biok laborategira sartu ginen ezkutuan, belarrak ikeritzeko.

Ordu eta erdi geroago emaitza jaso genuen: gripea sendatzeko balio zuen. Ez, ez zen nik pentsatzen nuena, oraindik konponbiderik ez duten gaitasunak sendatzeko balio zuen teoria, ez zen bete. Baina, jateko ere balio zuela esaten zuen ordenagailuak. Orduan, hauxe izango zen, nire hurrengo patata tortillaren osagai sekretua! Beno, behintzat txertatu gabe gripea sendatzeko balio du belarrak. Okerrena? Amaitu egingo zirela belarrak eta ezingo genituela berriro erabili. Baina... berriz ere joango bagina oasi sekretura? Bai! Gobernuari baimena eskatuko diogu belarrak hartzeko, eta nire nagusia ohartu ere egin gabe, abiatu egingo gara. Beste abentura baten bila!